

### PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	KALITATEA PROZESU GRAFIKOETAN (zeharkakoa)	Iraupena	30
		Berariazkoa	
Kodea	UF0242		
Lanbide-arloa	ARTE GRAFIKOAK		
Lanbide-eremua	Inprimaketa		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Inprimaketa digitala	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Arte grafikoetako prozesuak	Iraupena	100
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Arte grafikoetako faseak eta prozesuak (zeharkakoa)	Iraupena	40
	Laneko eta ingurumeneko arriskuen prebentzioa industria grafikoan (zeharkakoa)	Iraupena	30

#### A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0200\_2 PROZESU GRAFIKOAN, SEGURTASUN-, KALITATE- ETA PRODUKTIBITATE-BALDINTZETAN JARDUTEA gaitasun-ataleko LB2 lanbide-burutzapenarekin.

#### B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

##### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

- A1: Arte grafikoetan erabilitako kolore-parametroak eta -neurriak bereiztea eta aztertzea.
- EI1.1 Gune kromatikoak deskribatzea: RGB, CMYK, HSB, CIE Lab.
  - EI1.2 Kolorea neurtzeko aparatuak deskribatzea: kolorimetroa eta espektrofotometroa.
  - EI1.3 Argiztapen-iturriak, kolorearen tenperatura eta behatzeko baldintzak deskribatzea.
  - EI1.4 Kolore-laginetan:
    - Kolorearen parametroak identifikatzea: distira, asetasuna, tonua eta metameria-indizea.
    - Gune kromatikoetan balore kolorimetrokoak irudikatzea.
    - Koloreen arteko aldeak eta horiek sistema grafikoan berregiteko duten aukera ebaluatzea.
  - EI1.5 Neurtzeko tresnak erabiltzea (higrometroa, termometroa, doitasun-balantza, dentsimetroa, biskosimetroa eta mikroskopioa), hauen balioak lortzeko: euskarrien, materialen eta lehengaien hezetasuna, tenperatura, dentsitatea eta dimentsio-aldaketak.
  - EI1.6 Kolorea neurtzeko aparatuak deskribatzea: kolorimetroa eta espektrofotometroa.
- A2: Kalitatea kontrolatzeko "ereduzko" prozesu esanguratsuenaz aztertzea arte grafikoaren prozesuaren fase bakoitzean.
- EI2.1 Fabrikazioko kalitatea kontrolatzeko faseak eta funtsezko kontzeptuak deskribatzea.
  - EI2.2 Harrera kontrolatzeko prozesua labur deskribatzea.
  - EI2.3 Ekoizpen-prozesuko kalitatea kudeatzeko eta kontrolatzeko faseak deskribatzea.
  - EI2.4 Kalitatea kontrolatzeko tresnak deskribatzea: dentsitometroak, kolorimetroak, kontrol-zerrendak eta ekoizpena linean kontrolatzeko aparatuak.
  - EI2.5 Aurreinprimaketa-proba batean, eta inprimaketa-estandar batzuk kontuan izanda:
    - Neurketa dentsitometrikoak eta kolorimetrikoak egitea.
    - Kolore-gamaren erreproduktzioa finkatutako estandarrekin bat datorren ikustea.
  - EI2.6 Inprimatutako produktu batean, eta estandar batzuk kontuan izanda:
    - Neurketa-tresna hautatzea.
    - Neurketa-tresna kalibratzea.
    - Neurketa dentsitometrikoak eta kolorimetrikoak egitea, eta "trapping"a, irristadura eta grisen oreka neurtzea.
    - Gune kromatikoak.
    - Kontrol-zerrendan neurketak egitea.
    - Finkatutako estandarrekiko doikuntza egiaztatzea.
  - EI2.7 Produktu hauen kalitate-ezaugarriak esanguratsuenak deskribatzea:
    - Koadernaketa eta manipulazioak: balorazio subjektiboa, ebakidura-markak, aztarnak, erregistro-seinaleak, kolatzea.
    - Tolestaketarekiko erresistentzia.
    - Igurzetarekiko erresistentzia.
    - Inprimaketa: dentsitatea, "trapping"a, estanzazio-irabazia, kolore-oreka, enpastatzea, irristadura, erregistroa.
    - Aurreinprimaketa: probak, estandarrak.
  - EI2.8 Inprimakiaren azken egoera egiaztatzea, eta manipulazioaren zehaztapenekin erlazionatzea.
    - EI2.9 Produktua bukatu ondoren, lortutako kalitatea ebaluatzea, hura lortzeko prozesua aztertuz.

## Edukiak

### 1. Kalitatea prozesu grafikoetan

- Kalitate-kontrola. Hari dagozkion kontzeptuak.
- Kontrol-elementuak.
- Kontrol-faseak: materialen harrera, prozesuak eta produktuak.
- Saiakuntzak, tresnak eta neurketa bereizgarrienak.
- Aurreinprimaketaren kalitatea: puntu-irabazia, grisen oreka eta dentsitatea.
- Inprimaketa-aldagaiak (inprimaketa-dentsitatea, kontrastea, barnartzea, finkatzea, estapanazio-irabazia, kolore-oreka eta grisen oreka).
- Inprimaketako kontrol-guneak. Neurketa.
- Postinprimaketaren kalitatea.
- Koadernaketa eta manipulazioa begiz kontrolatzea.
- Koadernaketaren eta manipulazioen akatsak egiaztatzea. Fabrikazioaren kalitatea.
- ISO eta UNE arauak.
- AENOREko 54 Batzordeak prozesu grafikoari buruz argitaratutako arauak eta estandarrak.

### 2. Kolorea eta haren neurketa

- Espekto elektromagnetikoa.
- Ikusmenaren filosofia.
- Gune kromatikoa.
- Kolorearen pertzepzioari eragiten dioten faktoreak.
- Kolorearen teoria. Kolorearen sintesi gehikorra eta kenkorra.
- Kolorea irudikatze sistemak: MUNSELL, RGB, HSL, HSV, PANTONE, CIE, CIE-Lab, GAFT.
- Kolorea neurtzeko tresnak: tentsiometroak, distira neurtzeko gailuak eta espektrofotometroak.
- Kolorearen ebaluazioa.

## C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

### Sartzeko irizpideak

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Inprimaketa digitala.